**Gizarte-arriskuak edo gizarte-bazterkeriak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko helburuarekin, aldizkakoak ez diren udal-laguntzak (AEUL), zuzenekoak eta ezohikoak, Basauriko bizilagunei ematea arautzen duten Oinarrien onartzea.**

Alkatearen 2016ko otsailaren 29ko 795/2016 dekretuaren bidez Gizarte-arriskuak edo gizarte-bazterkeriak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko helburuarekin, aldizkakoak ez diren udal-laguntzak (AEUL), zuzenekoak eta ezohikoak, Basauriko bizilagunei ematea arautzen duten Oinarriak onartu dira.

**GIZARTE-ARRISKUAK EDO GIZARTE-BAZTERKERIAK PREBENITZEKO, SAIHESTEKO EDO ARINTZEKO HELBURUAREKIN, ALDIZKAKOAK EZ DIREN UDAL-LAGUNTZAK (AEUL), ZUZENEKOAK ETA EZOHIKOAK, BASAURIKO BIZILAGUNEI EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK**

2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen xedea da EAE eremuan gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsala arautu eta antolatzea.

Lege horretako 6. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) helburua ezartzen da:

a) Norberaren autonomia sustatzea eta mendekotasunaren bidez sortutako premia pertsonalak eta familiarenak prebenitzea eta artatzea.

b) Babesgabetasun-egoeren bidez sortutako premiak prebenitzea eta artatzea.

c) Bazterkeria-egoerak prebenitzea eta artatzea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

d) Larrialdi-egoerak direla-eta, norberari eta familiari sortutako premiak prebenitzea eta artatzea.

16. artikuluan GZES beraren prestazio ekonomikoak definitzen dira, eta 22.3 artikuluan prestazio ekonomikoak kategorien arabera sailkatzen dira. Besteak beste, 3.5 prestazioak aipatu behar dira; hau da, GZESren helburuen esparruan ezar daitezkeen prestazio ekonomikoak: Oinarri hauetan araututako laguntzak kategoria horretan kokatuta geratuko dira.

Ondorioz, arau honen bidez aldizkakoak ez diren udal-laguntzak arautu nahi dira, esklusio-egoerak prebenitu eta artatze aldera eta pertsonen eta familien gizarteratzea sustatzearren.

**1. artikulua.—*Helburua***

Arau honen helburua da zuzeneko eta ezohiko diru-laguntzak ematea arautzea, bazterkeria-egoerak prebenitzeko eta artatzeko asmoarekin eta pertsonen eta familien gizarteratzea sustatzearren, Diru-laguntzen inguruko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 c) eta 28.3 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Laguntza horiek bereziak eta ezohikoak dira; izan ere, ordezko moduan erantzuna eman nahi zaie premiazko egoera aurkitu eta beste inolako prestazio ekonomiko edo zerbitzurik jaso ahal izan ez duten pertsonei. Laguntzak finalistak, murriztaileak eta subsidiarioak dira, eta, hala behar izanez gero, beste zerbitzu edo prestazioaren batekin osatu daitezke.

Gizarte, ekonomia, gizateria eta herriaren aldetik, interesgarria da behar bezalako erantzuna ematea oinarri arautzaile hauetako artikuluetan jasotako gastu espezifikoei aurre egiteko baliabide ekonomokoak ez dituzten pertsonen premiei. Behar horiek artatzen ez badira, pertsonak eta familiak arrisku larrian jartzen dira.

Halaber, bistakoa da laguntza horiek ezohikoak direla, jasotzen dituen pertsonak ezin baitu honako Lege hauetan jasotako prestazio ekonomikoen onuradun izan: Diru-sarrerak Bermatzearen eta Gizarte-inklusioaren inguruko abenduaren 23ko 18/2008 Legea eta azaroaren 24ko 4/2011 Legea, aurrekoa aldatzen duena; urtarri-

**Aprobación de Bases Reguladoras para la concesión de ayudas no periódicas municipales (ANPM) directas excepcionales a favor de vecinos y vecinas de Basauri con el objeto de prevenir, evitar o paliar situaciones de riesgo o de exclusión social.**

Por decreto de alcaldía número 795/2016 de fecha 29 de febrero de 2016 se han aprobado las «Bases reguladoras para la concesión de ayudas no periódicas municipales (ANPM) directas excepcionales a favor de vecinos y vecinas de Basauri con el objeto de prevenir, evitar o paliar situaciones de riesgo o de exclusión social».

**BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS NO PERIÓDICAS MUNICIPALES (ANPM) DIRECTAS EXCEPCIONALES A FAVOR DE VECINOS Y VECINAS DE BASAURI CON EL OBJETO DE PREVENIR, EVITAR O PALIAR SITUACIONES DE RIESGO O DE EXCLUSIÓN SOCIAL**

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre del 2008 tiene por objeto promover y garantizar en el ámbito de la CAPV el derecho a las prestaciones y servicios sociales mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal.

El artículo 6 establece la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales (SVSS):

a) Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de dependencia.

b) Prevenir y atender las necesidades originadas por situaciones de desprotección.

c) Prevenir y atender situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y grupos.

d) Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

El artículo 16 define las prestaciones económicas propias del SVSS y en el artículo 22.3 se categorizan las distintas prestaciones económicas. Entre ellas cabe destacar las prestaciones 3.5 prestaciones económicas que pueden establecerse en el marco de las finalidades propias del SVSS. Es evidente, que las ayudas reguladas en estas bases quedarán enmarcadas en dicha categorización.

En consecuencia, mediante esta norma se pretende regular las ayudas no periódicas municipales para prevenir y atender situaciones de exclusión y promover la integración social de personas y de las familias.

**Artículo 1.—*Objeto***

Esta norma tiene por objeto la regulación especial de la concesión de subvenciones directas excepcionales para prevenir y atender situaciones de exclusión y promover la integración social de personas y de las familias, de acuerdo con lo previsto en el artículo 22.2 c) y 28.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Estas ayudas especiales son de carácter singular y excepcional puesto que pretenden dar respuesta de forma subsidiaria a las personas que se encuentren en situación de necesidad y que no hayan podido acceder a ningunas otras prestaciones económicas o servicio. Son ayudas finalistas, restrictivas, subsidiarias y en su caso pueden ser complementarias con algún servicio o prestación.

Es de interés público, social, económico y humanitario dar respuesta adecuada a las necesidades de las personas que no dispongan de medios económicos para afrontar los gastos específicos recogidos en el articulado de estas bases reguladoras. Es evidente que la no atención de estas necesidades pone en serio riesgo a las personas y familias.

También es evidente la excepcionabilidad de estas ayudas ya que la persona perceptora no puede ser beneficiaria de las prestaciones económicas recogidas en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social y Ley 4/2011, de 24 de noviembre, que la modifica; Decreto 2/2010, de

cve: BAO-BOB-2016a045

laren 12ko 2/2010 Dekretua, etxebizitzaren prestazio osagarria arautzen duena eta urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua, Gizarte –Larrialdiko laguntzak arautzen dituena.

Kontuan izanik egoera horiek urtean zehar errepika daitezkeela, eta araudiak berdintasun, objetibotasun, gardentasun eta diskriminazio ezaren inguruko printzipioei eutsi behar dienez, oinarri arautzaileak onartu eta horien deialdi publikoa egin behar da.

**2.artikulua.—*Onuradunak. Baldintzak eta betebeharrak***

*Baldintzak*

AEUL laguntzak jaso ahal izango dituzte ondorengo baldintza orokorrak betetzen dituzten pertsonek:

a) Gizartean esku hartzeko udaleko Gizarte-langilearekin adostutako plan integralean parte hartzea; gainera, kasu horretan, prestazioa izapidetzea beste jarduera bat izango da ezarritako gizarteratze-prozesuan. Horretarako, Gizarte-langileak egoera hori bermatuko du txosten sozialaren bidez eta oinarrien arduradun teknikoaren onespenarekin.

b) Adin nagusikoa izatea, adin txikikoak haien kargura dituzten adin txikikoen kasuan izan ezik.

c) Laguntzaren modalitate bakoitzerako baldintza espezifikoak betetzea.

*Betebeharrak*

AEUL laguntzen onuradunen betebeharrak hauek izango dira:

a) Gizarte-langilearekin hobetzeko esku-hartze plan integrala adostea, eskaeraren aurretik.

b) Jasotako prestazioak emateko helburuan aplikatzea, eta gizarte-zerbitzuen aurrean agirien bidez justifikatzea.

c) Gizarte-langileari jakinaraztea aldaketak izanez gero prestazioak eskuratu ahal izateko baldintzak betetzeari dagokionean, eta, zehatzago, ondorengoak adieraztea:

— Familiaren osaeran izandako aldaketak.
— Prestazioa kalkulatzeko oinarri izan diren baliabideak aldatzea.
— Ohiko bizitokiaren inguruko aldaketak.

d) Oker jasotako prestazioen zenbatekoa edo okerreko zenbatekoa itzultzea, horretarako ezarritako prozesuaren arabera.

e) Gizarte Zerbitzuen aurrean azaltzea eta eskatutakoan haiekin lan egitea.

f) Emandako laguntzak justifikatzea, elikadura-gastuenak izan ezik, horien kasuan ez baita gastuaren egiaztagiria eskatuko.

**3.artikulua.—*Modalitateak, zenbatekoak eta bakoitza eskuratzeko baldintzak***

3.1. Etxebizitzarako laguntzak

3.1.1. *Ostatu hartzeko laguntzak*

Tipologia

1. Egoera ezberdinak medio, ohiko bizilekua utzi behar duten pertsonei eta/edo familiei premiazko moduan eta aldi baterako ostatua emateko beharrezko diren gastuak.

2. Etxetik botatzea saihesteko eta/edo eteteko beharrezko diren gastuak.

3. Etxebizitza eskuratzeko gastuak.

Baldintzak

— Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan gutxienez, adin txikikoak kargura dauden kasuan edota indarkeria matxistaren biktima izandako emakumeen kasuan izan ezik.
— Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea DBEri dagokion zenbatekoa baino 2 aldiz

12 de enero, por el que se regula la prestación Complementaria de vivienda y decreto 4/2011, de 18 de enero, por el que se regulan las Ayudas de Emergencia social.

Teniendo en cuenta que estas circunstancias se pueden repetir a lo largo del año y la regulación debe mantener los principios de igualdad, objetividad, transparencia y no discriminación, es necesario aprobar las bases reguladoras y realizar una convocatoria pública de las mismas.

**Artículo 2.—*Personas beneficiarias. Requisitos y obligaciones***

*Requisitos*

Podrán ser beneficiarios de las ANPM quienes reúnan los siguientes requisitos generales:

a) Participar en un plan de Intervención social integral, acordado con la Trabajadora Social municipal, en el que la tramitación de la prestación sea una actividad más en el proceso de inserción social establecido. A tales efectos, la Trabajadora Social avalará dicha situación mediante informe social con el V.º B.º de la responsable técnica.

b) Ser mayor de edad; salvo en el caso de menores que a su vez, tienen otros menores a su cargo.

c) Cumplir los requisitos específicos contemplados para cada modalidad de ayuda.

*Obligaciones*

Son obligaciones de las personas beneficiarias de las ANPM:

a) Acordar con la Trabajadora Social un plan de intervención integral de mejora y/o inserción social, previa a la solicitud.

b) Aplicar las prestaciones recibidas a la finalidad para la que se hubiera otorgado, debiendo justificarlo documentalmente ante los servicios sociales.

c) Comunicar a su Trabajadora Social de referencia cualquier cambio que se produzca en su situación con relación al cumplimiento de los requisitos que pudieran dar lugar al acceso de las prestaciones, y, más específicamente, los siguientes:

— Cambios en la composición familiar.
— Modificación de los recursos que hayan servido de base para el cálculo de la prestación.
— Cambios relativos al domicilio de residencia habitual.

d) Reintegrar el importe de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida, según proceso establecido para ello.

e) Comparecer ante los Servicios Sociales y colaborar con los mismos cuando sean requeridas.

f) Justificar las ayudas concedidas excepto para los gastos de alimentación que no se requerirá justificante del gasto.

**Artículo 3.—*Tipo de modalidades, cuantías y requisitos de acceso para cada una de ellas***

3.1. Ayudas de vivienda

3.1.1. *Ayudas de alojamiento*

Tipología

1. Gastos necesarios para procurar alojamiento de manera urgente y temporal a personas y/o familias que por diversas circunstancias deben abandonar su domicilio habitual.

2. Gastos necesarios para evitar y/o paralizar desahucios.

3. Gastos para el acceso a una vivienda.

Requisitos

— Estar empadronado/a en el municipio de Basauri con al menos 6 meses de antelación a la solicitud de ayuda, salvo en los casos en los que haya menores a cargo y/o mujeres víctimas de violencia sexista.
— No disponer de ingresos suficientes. Esto es, no disponer de unos recursos anuales superiores a 2 veces la cuantía

cve: BAO-BOB-2016a045

handiagoak, aurreko urteko izaera orokorrarekin, BUko kide-kopuruaren arabera. Aintzat hartuko dira eskaera egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak.

— DBErako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea, aurreko urteko izaera orokorrarekin BUko kide-kopuruaren arabera.

Zenbatekoak

1. eta 2. ataletako gastuak:

— Gehienez 2.400 euro (3 hilabete: agentzia, fidantza eta lehen hilabetea).

3. ataleko gastuak:

— Alokairuan etxebizitza eskuratzea: 2.400 euro (3 hilabete: agentzia, fidantza eta lehen hilabetea).

— Azpierrentamendua/ostatatzea (gela 1): 600 euro (2 hilabete: fidantza eta lehen hilabetea).

— Azpierrentamendua/ostatatzea (2 gela): 900 euro (2 hilabete: fidantza eta lehen hilabetea).

3.1.2. *Etxebizitzari eusteko eta kontserbatzeko laguntzak*

Tipologia

— Etxebizitza mantentzeko, konpontzeko, altzariak eskuratzeko eta etxebizitza mantentzeko zorpetzeko laguntzak.

Baldintzak

— Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez, adin txikikoak kargura dauden kasuan edota indarkeria matxistaren biktima izandako emakumeen kasuan izan ezik.

— Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea DBEri dagokion zenbatekoa baino 2 aldiz handiagoak, aurreko urteko izaera orokorrarekin BUko kide-kopuruaren arabera. Eskaera egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

— DBErako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea, aurreko urteko izaera orokorrarekin BUko kide-kopuruaren arabera.

Zenbatekoak

— 925 euro mantentze eta zorpetze gastuetarako eta 925 euro konponketak egiteko eta altzariak eskuratzeko.

3.2. Laneratzea eta gizarteratzea bultzatzeko laguntzak

Tipologia

BUko adin txikikoak haurtzaindegira eramateko gastuak, han zain ditzaten gurasoak lanean daudenean eta/edo prestakuntza-jarduerak egiten ari direnean edo egingo dituztenean.

Baldintzak

— Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez.

— Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea DBEri dagokion zenbatekoa baino handiagoak, aurreko urteko izaera orokorrarekin BUko kide-kopuruaren arabera. Eskaera egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

— DBErako ezarritako ondare-mugaren euro baino ondare handiagoa ez izatea, aurreko urteko izaera orokorrarekin BUko kide-kopuruaren arabera.

Zenbatekoak

— Gehienez 1.350 euro (150 euro/hilabeteko denboraldian); ezingo da gastu errealaren %80 gainditu.

correspondiente de RGI con carácter general del año anterior según el número de miembros de la UC. Se tendrán en cuenta los ingresos de los seis meses anteriores a la petición de la ayuda.

— No disponer de un patrimonio superior a 1/3 del límite de patrimonio establecido para la RGI con carácter general del año anterior según el número de miembros de la UC.

Cuantías

Gastos apartados 1 y 2:

— Tope 2.400 euros (3 meses: agencia, fianza y primer mes).

Gastos apartado 3:

— Acceso a alquiler: 2.400 euros (3 meses: agencia, fianza y primer mes).

— Acceso a subarriendo/hospedaje (1 habitación): 600 euros. (2 meses: fianza y primer mes).

— Acceso a subarriendo/hospedaje (2 habitaciones): 900 euros. (2 meses: fianza y primer mes).

3.1.2. *Ayudas para el mantenimiento y conservación de la vivienda*

Tipología

— Ayudas para el mantenimiento, reparaciones, mobiliario y endeudamiento de mantenimiento de la vivienda.

Requisitos

— Estar empadronado/a en el municipio de Basauri con al menos 6 meses de antelación a la solicitud de ayuda, salvo en los casos en los que haya menores a cargo y/o mujeres víctimas de violencia sexista.

— No disponer de ingresos suficientes. Esto es, no disponer de unos recursos anuales superiores a 2 veces la cuantía correspondiente de RGI con carácter general del año anterior según el número de miembros de la UC. Se tendrán en cuenta los ingresos de los seis meses anteriores a la petición de la ayuda.

— No disponer de un patrimonio superior a 1/3 del límite de patrimonio establecido para la RGI con carácter general del año anterior según el número de miembros de la UC.

Cuantías

— 925 euros para los gastos de mantenimiento y endeudamiento y 925 euros para los gastos de reparaciones y mobiliario.

3.2. Ayudas de apoyo a la inserción sociolaboral

Tipología

— Gastos derivados de la escolarización en guarderías de menores de la UC para su cuidado, cuando los progenitores estén realizando actividades laborales y/o formativas o las vayan a realizar.

Requisitos

— Estar empadronado/a en el municipio de Basauri al menos con seis meses de antelación a la solicitud de la ayuda.

— No disponer de ingresos suficientes. Esto es, no disponer de unos recursos anuales superiores a la cuantía correspondiente de RGI con carácter general del año anterior según el número de miembros de la UC. Se tendrán en cuenta los ingresos de los seis meses anteriores a la petición de la ayuda.

— No disponer de un patrimonio superior a 1/3 del límite de patrimonio establecido para la RGI con carácter general del año anterior según el número de miembros de la UC.

Cuantías

— Máximo 1.350 euros (150 euros/mes por un periodo de 9 meses), no pudiendo superar el 80% del gasto real.

cve: BAO-BOB-2016a045

3.3. Bestelako laguntzak

3.3.1. *Oinarrizko premiak*

Elikadura, jantziak eta oinarrizko tresnak (mantak, umetxoaren orgatxoa,...):

Baldintzak

— Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez, adin txikikoak kargura dauden kasuetan eta haurdun dauden emakumeak direnean izan ezik; antzinatasunaren baldintza hau betetzea ez da eskatuko, baldin eta beharrizana adin txikikoarena bada.

— Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea gizabanakoak urtean izango lukeen DBEren zenbatekoaren bikoitza baino handiagoak. Aintzat hartuko dira eskabidea egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak.

— 3.000 eurotik gorako ondarea ez izatea.

Zenbatekoak

— Gehienez 900 euro; ezingo da gastu errealaren %80 gainditu.

3.2.2. *Osasun-arloko premiak*

Botikako gastuak, errehabilitazio-tratamenduak, logopedia, protesiak, betaurrekoak, audifonoak, haginlaria; hots, gizarte-segurantzak estaltzen ez dituenak eta medikuak premia agintzeko egindako txostenarekin:

Baldintzak

— Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez, adin txikikoak largura dauden kasuetan eta haurdun dauden emakumeak direnean izan ezik; antzinatasunaren baldintza hau betetzea ez da eskatuko, baldin eta beharrizana adin txikikoarena bada.

— Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea gizabanakoak urtean izango lukeen DBEren zenbatekoaren bikoitza baino handiagoak, BUko kideen kopuruaren arabera. Aintzat hartuko dira eskabidea egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak.

— DBErako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea, BUko kide-kopuruaren arabera.

Zenbatekoak

— gehienez 900 euro; gastu errealaren %100era ere iritsi daiteke.

3.3.3. *Norberaren premiak*

Tipologia

3.3.3.1. BUko adin txikikoek beren garapen personalerako eta/edo sozialerako teknikoki garrantzitsutzat jotako jardueretan parte hartzetik sortutako gastuak.

Baldintzak

— Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez.

— Behar adinako diru-sarrerak ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea gizabanakoak urtean izango lukeen DBEren zenbatekoaren bikoitza baino handiagoak, BUko kideen kopuruaren arabera. Aintzat hartuko dira eskabidea egin aurreko sei hilabeteetako diru-sarrerak.

— DBErako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea, aurreko urteko izaera orokorrarekin BUko kide-kopuruaren arabera.

Zenbatekoak

— Gehienez 540 euro (60 euro/hilabeteko 9 hilabeteko denboraldian); ezingo da gastu errealaren %80 gainditu.

3.3. Otras ayudas

3.3.1. *Necesidades básicas*

Alimentación, vestido y enseres básicos (mantas, carrito bebé...):

Requisitos

— Estar empadronado/a en el municipio de Basauri al menos con 6 meses de antelación a la solicitud de la ayuda, salvo en los casos en los que haya menores a cargo y mujeres embarazadas en los que el requisito de antigüedad de padrón no será exigible, siempre que la necesidad a cubrir sea del menor.

— No disponer de ingresos suficientes. Esto es, no disponer de unos recursos anuales superiores a la cuantía correspondiente de RGI con carácter general del año anterior para una persona. Se tendrán en cuenta los ingresos de los seis meses anteriores a la petición de la ayuda.

— No disponer de un patrimonio superior a 3.000 euros.

Cuantías

— Máximo 900 euros, no pudiendo superar el 80% del gasto real.

3.3.2. *Necesidades sanitarias*

Gasto farmacéutico, tratamientos de rehabilitación, logopedia, prótesis, gafas, audífonos, dentista, no cubiertos por la seguridad social y con informe médico prescribiendo la necesidad:

Requisitos

— Estar empadronado/a en el municipio de Basauri al menos con seis meses de antelación a la solicitud de la ayuda, salvo en los casos en los que haya menores a cargo y mujeres embarazadas en los que el requisito de antigüedad de padrón no será exigible, siempre que la necesidad a cubrir sea del menor.

— No disponer de ingresos suficientes. Esto es, no disponer de unos recursos anuales superiores a 2 veces la cuantía correspondiente de RGI con carácter general del año anterior, según el número de miembros de la UC. Se tendrán en cuenta los ingresos de los seis meses anteriores a la petición de la ayuda.

— No disponer de un patrimonio superior a 1/3 del límite de patrimonio de RGI según el número de miembros de la UC.

Cuantías

— Máximo 900 euros, pudiendo ser el 100% del gasto real.

3.3.3. *Necesidades personales*

Tipología

3.3.3.1. Gastos derivados de la participación de los menores de la UC en actividades valoradas técnicamente como importantes para su desarrollo personal y/o social.

Requisitos

— Estar empadronado/a en el municipio de Basauri al menos con seis meses de antelación a la solicitud de la ayuda.

— No disponer de ingresos suficientes. Esto es, no disponer de unos recursos anuales superiores a la cuantía correspondiente de RGI con carácter general del año anterior según el número de miembros de la UC. Se tendrán en cuenta los ingresos de los seis meses anteriores a la petición de la ayuda.

— No disponer de un patrimonio superior a 1/3 del límite de patrimonio establecido para RGI con carácter general del año anterior según el número de miembros de la UC.

Cuantías

— Máximo 540 euros (60 euros/mes durante 9 meses), no pudiendo superar el 80% del gasto real.

cve: BAO-BOB-2016a045

3.3.3.2. 30 urtetik gorako pertsonen gizarte-inklusio prozesutik eratorritako gastu pertsonalak. Pertsona horiek zailtasunak izango dituzte gaitasun pertsonaletan edo sozialetan, bizitzako dinamismoak ere ahulduta edo desagertuta izango dituzte, eta, era horretan, ezingo dute nor bere kabuz moldatu, eta jatorriko BUrekiko mendekotasun egoeran aurkituko dira.

Baldintzak

— Basauriko udalerrian erroldatuta izatea laguntzaren eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez.

— 30 urtetik gorakoa izatea.

— Nork bere sarrerak ez edukitzea. Ez dira kontuan hartuko BUko gainerako kideen diru-sarrerak.

— 3.000 euro-tik gorako banako ondarea ez izatea.

Zenbatekoak

— Gehienez ere, 1.200 euro.

Ondarea zehaztea

Bizikidetza Unitatearen ondareak barne hartuko du aktiboa eta pasiboa, baldin eta azken hau betearazte judizial edota administratiboan badago.

Aktiboa osatuko dute ondasun higigarri eta higiezinek, horien gainean jabetza, edukitza edota usufruktu eskubidea badago. Hauen barruan egongo dira, gutxienez, ondoko hauek: hiri- eta landa-ondasun higiezinak, dirutan erraz bihurtzen diren titulu, balore eta kreditu eskubideak edota eskuzko dirua, errenta aldakor edota finkozko tituluak, motordun ibilgailuak eta, salbuespenez, familia-arreoa, DBEren araudian ezarritako baldintzetan.

Aktiboaren balio horretatik, salbuespenez, kenduko da Bizikidetza Unitatean dagoen pasiboa, baldin eta, zorren ordainketa korrientea artxibatu bada, bizikidetza unitateko kideren batek betearazte judizial prozedura batean demandatua edota betearazte administratibo baten parte izan eta ondarea osatzen duten ondasunen prebentziozko enbargo edota behin betiko enbargoa ezarri bada. Kasu horretan, aktibotik kendu beharreko balioa izango da aipatutako prozeduretan erreklamatutako zenbatekoa, dagozkion enbargoak eragin dituena.

### 4.artikulua.—*Eskaera egiteko epea*

Eskaera egiteko epea oinarriak argitaratzen direnetik 2016ko abenduaren 9ra arte egin ahal izango da.

### 5.artikulua.—*Finantzaketa*

2016. urterako AEUL laguntzak 11 2314 48099 partidan jasotako aurrekontuko kredituaren kargura finantzatuko dira , 50.000,00 euro kopuruaz.

### 6.artikulua.—*Emateko prozedura*

Diru-laguntza zuzenean ematen da, oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu eta gero, Diru_laguntzen inguruko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2.c) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta, Lege horretako 28. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritakoari dagokionean, interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko arrazoiak izateagatik.

*Eskaera aurkeztea*

Aldizkakoak ez diren Udal Laguntzen eskaerak Basauriko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egin eta entregatuko dira.

Eskatzaileak, behar bezala betetako eskaerarekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia, eta, hala behar izanez gero, familia-unitateko gainerako kideena.

b) Familia-liburuaren fotokopia, eta/edo, hala behar izanez garo, zaintza edo babesa egiaztatzen duten agiriak.

3.3.3.2. Gastos personales derivados del proceso de inclusión social de personas mayores de 30 años con dificultades en sus competencias de tipo personal o social, así como debilitamiento o desaparición de los dinamismos vitales, impidiéndole un desenvolvimiento autónomo y situándole en dependencia de su UC de origen.

Requisitos

— Estar empadronado/a en el municipio de Basauri al menos con seis meses de antelación a la solicitud de la ayuda.

— Ser mayor de 30 años.

— Carecer de ingresos propios.

— No disponer de un patrimonio individual superior a 3.000 euros.

Cuantías

— Máximo 1.200 euros.

Determinación del patrimonio

El patrimonio de la unidad de convivencia incluirá el activo y el pasivo en el caso de que esté en proceso de ejecución judicial o administrativo.

Respecto a los elementos de activo, estará integrado por el el conjunto de bienes muebles e inmuebles sobre los que se ostente un título jurídico de propiedad, posesión o usufructo, incluyendo al menos los bienes inmuebles urbanos y rústicos, los títulos, valores, derechos de crédito de fácil realización o dinero en efectivo, los títulos de renta variable o fija, los vehículos a motor y, en casos excepcionales, el ajuar familiar, en los términos establecidos en la normativa vigente de R.G.I.

De dicho valor del activo y con carácter excepcional, se detraerá el pasivo existente en la unidad convivencial, en los supuestos en que, habiéndose sobreseido en el pago corriente de deudas, alguno de los miembros de la unidad convivencial haya sido demandado en un proceso de ejecución judicial o sea parte en un proceso de ejecución administrativo, y se haya adoptado la medida de embargo, preventivo o definitivo, de los bienes que integran el patrimonio. En tal caso, el valor a detraer del activo será el importe reclamado en los procedimientos de ejecución mencionados que hayan causado los embargos correspondientes.

### Artículo 4.—*Plazo de Solicitud*

El plazo de solicitud será desde la publicación de las presentes bases hasta al 9 de diciembre del 2016.

### Artículo 5.—*Financiación*

La financiación para el año 2016 de las ANPM se efectuará con cargo a un crédito presupuestario recogido en la partida 11 2314 48099, por un importe de 50.000,00 euros.

### Artículo 6.—*Procedimiento de concesión*

La subvención se concede de forma directa, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos establecidos en las presentes bases reguladoras, en aplicación de lo previsto en el artículo 22.2.c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de Subvenciones, en relación con lo establecido en los apartados 2 y 3 del artículo 28 de dicha Ley, por concurrir razones de interés público, social, económico y humanitario.

*Presentación de Solicitudes*

Las solicitudes de Ayudas No Periódicas Municipales serán formuladas y entregadas en los Servicios Sociales de Base del Ayuntamiento de Basauri.

El/la solicitante deberá acompañar a la instancia, debidamente formalizada, la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI del solicitante y, en su caso, del resto de los miembros de la unidad familiar.

b) Fotocopia del libro de familia y/o en su caso, los los Documentos que acrediten la guardia y custodia o tutela.

cve: BAO-BOB-2016a045

c) Familia-unitateko kide guztien sarreren ziurtagiriak (nominak, pentsioak, langabezia prestazioak/subsidioak, DBE/EPO).

d) Eskatzailearen ondasun higigarrien eta higiezinen ziurtagiriak, eta, hala behar izanez gero, familia-unitateko kide guztienak (estatukoak, foru-mailakoak eta jatorriko herrialdekoak).

e) Errenta-aitorpenaren fotokopia edo, haren ordez, aitorpena ez egitea egiaztatzeko Ogasunak emandako ziurtagiria.

f) Bizikidetza Unitateko kide guztien lan-bizitza.

g) AEL helbideratzeko banku-agiria, edo, haren ordez, banku-endosua.

h) Gastuen fakturak edo aurrekontuak (laguntza gastu horietarako eskatuko da).

i) Premia-egoera bermatzen duen beste edozein agiri eta/edo gizarte-langileak eskatutako agiriak egoera egiaztatzearren.

Era berean, administrazio-espedientea osatze aldera, eskatzaileak emandako dokumentazioa bBasauriko Udalak osatuko du ondorengo agiriekin:

a) Errolda eta ibilgailuen gaineko ziurtagiria.

b) Horren lekuan, familia-unitateko kide guztien bizikidetza-ziurtagiria.

c) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako txosten soziala.

Basauriko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatu ahal izango dituzte onuradunek egindako aitorpenak, eta, horretarako, beharrezkoak diren datu eta txosten guztiak eskatu ahal izango dizkiete beste erakunde edo entitate publiko eta pribatuei, interesatuaren onespenarekin.

*Ebazpena*

Espedientea dekretu bidez ebatziko da.

Basauriko Udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Aldizkakoak Ez diren Udal Laguntzen onuradunen jarraipena egingo dute, dagokion dokumentazioaren bidez laguntzak aurreikusitako helburuetara egokitu direla egiaztatu ahal izate aldera.

Aurreikusitako helburuirako erabiltzea bermatzeko, ez-ohiko kasuetan eta laguntzaren onuraduna aurrez ados izanik, laguntza zuzenean igorri ahal izango zaie zerbitzua eskaintzen duten pertsonei edo, haien lekuan, borondatezko erakundeei, Udaleko Gizarte Zerbitzuen laguntzaileak direnei.

Halaber, laguntza ordainketa bakarrean edota zatikatutako hainbat ordainketatan eman ahal izango da.

Aipatu laguntza aurreikusitako gastu espezifikorako erabilia izan dela justifikatzen ez bada, itzuli egin beharko da okerreko kobrantza-prozesuari hasiera emanda, elikaduraren inguruko gastuetarako izan ezik, kasu horretan gastua ez baita justifikatu beharrik izango.

Aldizkakoak ez diren Udal Laguntzak ezingo dira inola ere konpentsatzeko edo deskonturako edo atxikipen edo enbargorako erabili.

**7.artikulua.—*Justifikazioa***

Laguntzak justifikatzeko, laguntza izan duten kontzeptuen inguruko ordain-agiriak eta/edo fakturak aurkeztu beharko dira, elikadurako gastuen kasuan izan ezik, horiek justifikatu beharrik ez izateagatik.

Justifikatzeko epea gehienez hilabete batekoa izango da, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita ordainketa bakarra egin denean; zatikatutako ordainketei dagokienez, hamabost eguneko epea emango da, ordainketa partzial ezberdinak egiten diren unetik aurrera.

Laguntza justifikatzen ez bada, okerreko kobratzen prozesuari hasiera emango zaio.

c) Certificados de ingresos de todos los miembros de la unidad familiar (nóminas, pensiones, prestaciones/subsidios de desempleo RGI/PCV).

d) Certificados de bienes muebles e inmuebles del solicitante y en su caso de todos los miembros de la unidad familiar. (Estatal, foral y país de origen).

e) Fotocopia de la declaración de la renta o en su caso certificado de Hacienda de no hacerla.

f) Vida laboral de todos los miembros de la Unidad Convivencial.

g) Documento bancario para la domiciliación de la ANPM y en su caso endoso bancario.

h) Facturas o presupuestos de los gastos para los que solicita ayuda.

i) Cualquier otro documento que avale la situación de necesidad y /o que sea requerido por la Trabajadora Social para constatar la misma.

Asimismo, y a efectos de integrar el expediente administrativo, la documentación entregada por la persona solicitante será complementada por el Ayuntamiento de Basauri mediante la aportación de los siguientes documentos:

a) Certificado de empadronamiento y vehículos.

b) En su caso, certificado de convivencia de todos los miembros de la unidad familiar.

c) Informe social elaborado por los Servicios Sociales.

Los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Basauri podrán verificar las declaraciones de los/as beneficiarios/as, solicitando cuantos datos e informes sean necesarios a otras instituciones o entidades públicas y privadas, con el consentimiento del interesado.

*Resolución*

La resolución del expediente se realizará mediante Decreto de Alcaldía.

Los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Basauri realizarán el seguimiento de los/as beneficiarios/as de las Ayudas No periódicas municipales, a efectos de comprobar mediante la documentación oportuna el que las referidas ayudas se hayan adecuado a los fines previstos.

A efectos de garantizar la utilización para el fin previsto, en casos excepcionales y previa conformidad del beneficiario/a de la ayuda, ésta podrá librarse directamente a las personas que presten el servicio o en su caso a entidades voluntarias colaboradoras de los Servicios Sociales Municipales.

Asimismo, la ayuda podrá librarse en un solo pago o en varios pagos fraccionados.

La no justificación de que la referida ayuda se hubiera destinado al gasto específico para el que fue prevista conllevaría la devolución de la misma a través del inicio de un proceso de cobro indebido, excepto para los gastos de alimentación que no se requerirá justificante del gasto.

Las Ayudas No Periódicas municipales no podrán ser, en ningún caso, objeto de compensación o descuento, retención o embargo.

**Artículo 7.—*Justificación***

Las ayudas se justificarán mediante la presentación de recibos y/o facturas relativas a los conceptos para los que se hayan concedido, excepto los gastos de alimentación que no requerirán justificación.

El plazo máximo será de un mes a partir de la fecha de notificación de la resolución en el caso de un único pago; en el caso de pagos fraccionados, el plazo será de quince días a partir del momento en el que se realicen los diferentes pagos parciales.

La no justificación de la ayuda dará lugar al inicio del proceso de cobros indebidos.

cve: BAO-BOB-2016a045

**8. artikulua.—*Segimendua***

Basauriko Udaleko Gizarte Zerbitzuek laguntza horiek jaso dituen pertsonaren segimendua egingo dute, aipatu laguntzak aurreikusitako helburuetara egokitu direla eta laguntza ekarri duen premiaren mantentzea egiaztatzearren.

**9.artikulua.—*Araubide juridiko aplikagarria***

Laguntzak honako hauek eraenduko dituzte: oinarri arautzaile hauetan ezarritakoak; Gizarte Zerbitzuen inguruko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak; Diru Sarrerak Bermatzearen eta Gizarte Inklusioaren inguruko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritakoak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduak, publizitate eta konkurrentzia printzipioei dagokienean izan ezik.

Basaurin, 2016ko urtarrilaren 26an.—O.E. Gizarte Politikako Atal Burua, Idazkari Nagusia

(II-833)

## Zamudioko Udala

**Zergadunei aurkezteko deia (20160222)**

Jarraian aipatuko diren zergadunei ezin izan zaie berariaz jakinarazi administrazioren egintza betearazle bat, ezezagunak izan, absente egon, euren helbidea ez ezagutu edo beste arrazoiengatik, hortaz, iragarpen hau argitara ematen da Estatuko Aldizkari Ofizialean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 59.5 eta 61. artikuluek aurreikusitakoa betetzen delarik. Zitaio honen eraginpeko zergadunei edo euren ordezkariei eskatzen zaie 15 eguneko epean agertu daitezen, ediktu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Zamudioko Udalako Betearazpideko Zergabilketa bulegoan (Sabino Arana plaza, 1), eurei zuzenean jakinarazteko. Epe hau igaro ondoren, jakinarazitzat joko da legezko ondorio guztietarako, agerraldia egiteko biharamunetik aurrera.

**Premiamenduzko probidentzia**

| Esp. | Izen abizenak | NAN/IFZ |
|---|---|---|
| 5037 | ADINOSAL SL | B95008892 |
| 4921 | AGRELO ZALBIDE JESUS MARIA | 78897137F |
| 1763 | ALEACIONES Y ALEACIONES Y METALES LAR S.L. | B48289870 |
| 5411 | ALIMENTACION AYGU SL | B48583223 |
| 5220 | ARGIA SERVICIOS GRAFICOS SL | B48501852 |
| 2101 | ASADOR FUENTENE ASADOR FUENTENE | B48699383 |
| 2376 | ASTASATUR SL ARTASATUR S.L | B95119533 |
| 5515 | ATXUTEGI SAGASETA PEDRO MARIA | 14894484Y |
| 5221 | AURREKOETXEA ZABALA ITXASNE | 78941233N |
| 5516 | AYARZA SAGASTIZABAL ALASNE | 78881323V |
| 5418 | BALASEL XX, CIPRIAN CIPRIAN | X06338591K |
| 4204 | BAYSU S BAYSU S.L. | B48494454 |
| 4655 | BEGOÑA LOROÑO YOTRA | E48535009 |
| 4856 | BILBAO ETXEANDIA JOSE LUIS | 14844427C |
| 5517 | BILBAO UNIBASO JOSE ANTONIO | 14557827T |
| 5049 | BOYANOV VLASEV VLADIMIR | X3389053A |
| 5050 | BREADYS FACTORY SA | A48774749 |
| 2300 | BRINGAS GARCIA JOSEBA | 14566815H |
| 1753 | BRONCES DEL NORTE SA | A48146930 |
| 1806 | BUSTAMANTE OÑARTEECHEBARRIA JOSE LUIS | 14920708X |
| 5226 | CANALES LLANOS PEDRO MARIA | 30659746X |
| 2393 | CARPINTERIA METALICA DEKAL S.L | B48540652 |
| 5598 | CDAD PROPIETARIOS GORBEIA 7 | |
| 5518 | CHOQUE LEON BENIGNA | X08601171E |
| 5519 | CIFUENTES GALINDO LUCIANO | X05770714Z |
| 4403 | CIFUENTES LONDOÑO JAIRO | X5504885L |
| 2470 | CIMENTACIONES DOSSFER, S. L. | B48802318 |
| 4405 | CONDUCTORES TECNOLOGICOS ELECTRICOS S.L. | B48584296 |
| 5018 | CONSTRUCCIONES Y REFORMAS BASURTO S.L. | B95520441 |
| 1821 | CONSTRUCCIONES Y REFORMAS SANITARIAS | B481838379 |

**Artículo 8.—*Seguimiento***

Los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Basauri realizarán el seguimiento de la persona beneficiaria de estas ayudas, a efectos de comprobar mediante el que las referidas ayudas se hayan adecuado a los fines previstos y el mantenimiento de la necesidad que generó la misma.

**Artículo 9.—*Régimen jurídico aplicable***

Estas ayudas se regirán, por lo dispuesto en las presentes bases reguladoras; por la Ley 12/2008, de 5 diciembre, de Servicios Sociales; la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social y por lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en su Reglamento aprobado por el RD 887/2006, de 21 de julio, salvo en lo que afecte a los principios de publicidad y concurrencia.

En Basauri, a 26 de enero de 2016.—V.º B.º La Jefa del Departamento de Política Social, La Secretaria General

(II-833)

## Ayuntamiento de Zamudio

**Citación de comparecencia a contribuyentes (20160222)**

No habiendo sido posible la notificación de forma expresa de un acto administrativo ejecutivo para los contribuyentes relacionados a continuación, por haber resultado desconocidos, ausentes, ignorarse su domicilio u otras causas, se hace público el presente anuncio en el «Boletín Oficial del Estado», cumpliendo lo previsto en los artículos 59.5 y 61 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, requiriéndose a los contribuyentes o a sus representantes a los que afecta la presente citación a fin de que comparezcan en el plazo de 15 días , a partir del siguiente de la publicación del presente edicto, en la Oficina de Recaudación Ejecutiva del Ayuntamiento de Zamudio (Sabino Arana plaza, 1), con objeto de ser notificados personalmente. Transcurrido dicho plazo, la notificación se entenderá efectuada a todos los efectos legales desde el día siguiente al del vencimiento del plazo para comparecer.

**Providencia de apremio**

| Exp. | Apellidos y nombre | DNI/CIF |
|---|---|---|
| 5037 | ADINOSAL SL | B95008892 |
| 4921 | AGRELO ZALBIDE JESUS MARIA | 78897137F |
| 1763 | ALEACIONES Y ALEACIONES Y METALES LAR S.L. | B48289870 |
| 5411 | ALIMENTACION AYGU SL | B48583223 |
| 5220 | ARGIA SERVICIOS GRAFICOS SL | B48501852 |
| 2101 | ASADOR FUENTENE ASADOR FUENTENE | B48699383 |
| 2376 | ASTASATUR SL ARTASATUR S.L | B95119533 |
| 5515 | ATXUTEGI SAGASETA PEDRO MARIA | 14894484Y |
| 5221 | AURREKOETXEA ZABALA ITXASNE | 78941233N |
| 5516 | AYARZA SAGASTIZABAL ALASNE | 78881323V |
| 5418 | BALASEL XX, CIPRIAN CIPRIAN | X06338591K |
| 4204 | BAYSU S BAYSU S.L. | B48494454 |
| 4655 | BEGOÑA LOROÑO YOTRA | E48535009 |
| 4856 | BILBAO ETXEANDIA JOSE LUIS | 14844427C |
| 5517 | BILBAO UNIBASO JOSE ANTONIO | 14557827T |
| 5049 | BOYANOV VLASEV VLADIMIR | X3389053A |
| 5050 | BREADYS FACTORY SA | A48774749 |
| 2300 | BRINGAS GARCIA JOSEBA | 14566815H |
| 1753 | BRONCES DEL NORTE SA | A48146930 |
| 1806 | BUSTAMANTE OÑARTEECHEBARRIA JOSE LUIS | 14920708X |
| 5226 | CANALES LLANOS PEDRO MARIA | 30659746X |
| 2393 | CARPINTERIA METALICA DEKAL S.L | B48540652 |
| 5598 | CDAD PROPIETARIOS GORBEIA 7 | |
| 5518 | CHOQUE LEON BENIGNA | X08601171E |
| 5519 | CIFUENTES GALINDO LUCIANO | X05770714Z |
| 4403 | CIFUENTES LONDOÑO JAIRO | X5504885L |
| 2470 | CIMENTACIONES DOSSFER, S. L. | B48802318 |
| 4405 | CONDUCTORES TECNOLOGICOS ELECTRICOS S.L. | B48584296 |
| 5018 | CONSTRUCCIONES Y REFORMAS BASURTO S.L. | B95520441 |
| 1821 | CONSTRUCCIONES Y REFORMAS SANITARIAS | B481838379 |

cve: BAO-BOB-2016a045